

Aste Santua fedez bizi zen Lasarte-Orian

Egun hauetan, herritar ugari bildu dira elizkizun eta ospakizunetan

Aste Santua igaro da. Batzuk herritik kanpo, besteak herrian bertan. Oporrak dira batzuentzat, baina ezin da ahaztu egun hauek duten esanahia.

Ostegun Santuko Meza Nagusiek Jesusek apostoluekin ospaturiko azken afaria ekartzeko digu gogora; Ostiral Santu egunean berriz Jesusen pasioa, larunbat gauean eta Pazko igandean Jesusen berpizkundearengatik oitoz egi-ten da.

Izan ere, Lasarte-Oriako herritarrek fedez bizi izan dituzte hain egun seinalatuak.

Eta horren adibide, San Pedroko parrokian, Arantzazuko Amaren parrokian eta Brigitarren komentuan antolatu diren elizkizun eta Gurutze bideetan herritar ugari bildu direla da.

Gurutze bideak

Ostegun Santuan euria egin bazuen ere, ostiralean atertu eta gure herrian ohitura han-

dikoak diren Kalbario bideko eta Azkorteke Gurutze bideak egin zituzten fededunek.

Giro ederra izan zuten beraz, eliztarrek Gurutze bidean Jesusek bizitakoa gogora ekartzeko.

Goiztiarrenak, San Pedro parrokiko ehun bat fededun izan ziren.

Goizeko 8:00etan Kalbario bidea egin zuten, Xabier Andonegi parrokoaren laguntzaz, eta bideko gurutze bakoitzean Pasioaren pasarte bat irakurri zuten.

Bi ordu, beranduago Arantzazuko Ama elizako eliztarrek Azkorterako bidea egin zuten, Juan Luis Murua apaizaren laguntzaz. Azken pasarte, ermitan bertan irakurri zutelarik.

Baina ez ziren hauek izan bakarrak. Ama Brijitarren komentuan ere Gurutze bidea egin baitzuten kaperan bertan. Xabier Andonegi parrokoak gidatuta egin zuten ospakizuna. •




Goian, San Pedro elizatik Kalbario Bidera eginiko Gurutze bidea, eta behean Arantzazuko amaren elizatik Azkorterera.



Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Brigada Berdea ingurumenaz arduratzen da /4

KIROLA/6

Ferreira eta bere zakurra txapeldun Buruntz-Azpi elkarteak antolatutako ehiza txapelketan



XII. Jardunaldi Internazionalistek kapitalismoaren alternatibak aztertuko dituzte /5



ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Neure kabuz



Gorbata erosiko dut

Beharko, bai. Gauzak dau- den moduan, itxuroso atera behar da etxetik. Dutzatuta eta elegantea, ahal bada. Ele- gantea bai, gutxienez. Inpor- tantea da itxura. Zergatik? Uii! Galdetzea ere! Kamerak nonahi, kalean emandako pauso guztiak grabatuta gera- tzen direlako, aizu. Galdetu, galdetu bestela Paris aldera joandako Kataluniako suhil- tzaile horiei. Erosketako gur- ditxoak bultzatzen zuen morroi lerdin burusoiltsuari, adibidez (hara! Egia! Ez bakarrik gorbata, peluka ere erosi beharko! Lotsak agerian ez agertzearren, noski). Urbi- lera hurbiltzen naizen hurrengoan zintzo-dotorea- ren plantan egingo dut beraz, bai horixe, hatza sudur zulo- etan sartu gabe. Saiatuko naiz, behintzat.

Txantxetan ari naizela ematen badu ere, ez da horrela. Kontua grabea da. Konturatu gabe, inongo legerik urratzen ez duten irudi, komunikazio edota mugimenduen kontrola era- batekoa da. Eta onartu egi- ten dugula ematen du.

Hori, oro har, horrela bada, Euskal Herrian, nola esan... Hemen kamera finko- ez gain mugikorrek ditugu ugari. Ezetz? Azkena (?) kon- tatuko dizut, aurreko ostira- lean gertatua Lasarten, tren geltokiaren ondoko erroton- dan. Durangon GazteHerriak antolatutako ekitaldiertara joateko asmoz, dozena pare bat gazte zeuden autobusa- ren zain. Autobusa baino azkarrago, Polizia Nazionala etorri, paretaren kontra jarri, identifikatu, katxeatu... eta grabatu egin zituen (casting baterako?). Eta ben-hur.

Ba, hori. Ustezko erruga- beak baino ez gara.

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Asier

Zorionak zortzigarren urtebetetzean eta muxu handi bat Ander, aita eta amaren partetik



Amaiar

Zorionak sorgintxo! Txokolatzeko bi muxu etxekeoen partetik.



Nora

Zorionak eta zortzi muxu handi etxeko pertsona berezienari guztien partetik.



Irati

Zorionak maitia. Bi muxu potolo. Aitaxto, amatxo eta familiaren partetik.




Irati

Zorionak, urrutiti egon arren etzaitut ahazten. Osabaren partetik.



Juncal

Zorionak printzesa! Zortzi muxu handi familiaren partetik.



Sergio eta Aimar

Zorion-pilo bat opa dizuegu. Marrubizko 7 muxu eta 3 muxu potolo guztion partetik.



Sara

Zorionak eta txokola- tzezko bi muxu, aiton- amonak eta gurasoen partetik.



Nahia

Zorionak bihurri 4. urte- mugan. Ondo pasa eta txokolatzeko muxuak, Maialen, Gaizka eta Xabier.

Guardiak

- Ostirala, 9**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Larunbata, 10**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Igandea, 11**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Astelehena, 12**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Asteartea, 13**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Asteazkena, 14**
Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567
- Osteguna, 15**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112

Udala

- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua ... 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Logela bat alokatzen da, sukala- deko eskubidearekin. Lasarte- Oriako erdialdean dago. Harremanetarako telefono zenbakia: 677 302 010, Jokin.

• Etxe bat saltzen da Alesancon (Ezcarayren ondoan) lorategiare- kin, igerilekuarekin eta hainbat gune komunekin. Harremanetara- ko telefona 676 910 566.

• Pisua salgai Lasarte-Orian. 4 gela, komuna, sukaldea, egongela eta ganbara ditu. Dena kanpoal- dea ematen du eta eguzkitsua da. Prezio interesgarria du. Harrema- netarako telefono zenbakia: 664 668 652.

• Lasarte-Orian etxebizitza salgai, 5 gela, sukaldea eta komuna ditu. Eguzkitsua da. Prezioa negoziatze- ko. Harremanetarako telefono zenbakia: 662 332 848.

• 80 metro karratuko etxea alo- katzen da Lasarte-Orian. Harre- manetarako telefono zenbakia, 628 904 130.

• Lokala alokatzen da, 35 m2 ditu eta Zabaleta auzoan dago. Harre- manetarako telefono zenbakia: 686 234 408.

• Salgai etxe familiar polit bat Usturriben, kiroldegia- ren ondoan. Tel.: 605 708 490. Mari Carmen.

• Pisua salgai Iruran. 3 gela, komu- na, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Berro- gailua eta armairu enpotratuak ditu. Harremanetarako telefono zenbakia: 695 785 153.

• Usturribilgo kaxkoan pisua salgai. Dena berrietua, hiru balkoi eta eguzkitsua. Harremanetarako telefono zenbakia: 686 96 91 12.

Salerosketak

• Salgai autorako 4 hagon (llanta) 195/ 50r 15 neurrikoak. Harrema- netarako telefona: 638 421 713.

• Halo III edizioko XBOX 360a saltzen dut zapzi joko eta HMI kablearekin. Hau guztia, 100 euro- tan. Telefona: 647 254 082.

Lan-eskaintzak

• Interneten nabigatzen ikasteko eskolak hartu nahi ditut. Ikastaroa etxean egingo litzateke. Harrema- netarako zenbakia, 943 362 587.

• Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Harremanetarako zen- bakia, 619 468 751.

Lan-eskariak

• Pertsona arduratsua eta klinika laguntzaile, geriatria eta psikologia esperientziadunak pertsona adin- duak zainduko lituzke. 680 983 527, Karlos.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4, 20160 Lasarte-Oria

* Atal honetako oharrak, asteazken eguerdia baino lehen bidali behar dira.

Jaiotzak

- Isabella Bon- dar, apirilaren 5ean.
- Alai Curiel Nuñez, apirilaren 4an.
- Erika Ilnasheva, apirilaren 1ean.
- Marcos Antolin Tome, martxoar- en 28an.

Heriotzak

- Xabier Bardaji Ollor- quegui, apirilaren 7an 77 urte zituela.
- Jose Lopez Gomez, apirilaren 5ean 57 urte zituela.
- Luis Letamendia Arrillaga, mar- txoaren 30ean 80 urte zituela.
- Antonio Garcia Arribas, matxoar- en 27an 72 urte zituela.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Gazteen arteko sariketarik garrantzitsuenetan maila onean ari da Ane Labaka, Lasarte-Oriako bertsolari gaztea.

Ane Labakak, Hernandorena Sariko finalean abestuko du

■ Muskildin Posonpesenean bihar arratsaldeko 19:30ean
 ■ Izar Mendiguren, Maiana Hirigoien, Eneritz Arzallus, Ximun Cazaubon eta Aimar Karrika ere saiatuko dira

TXINTXARRI

Ane Labaka txukun ari da bertsotan negu parteko sariketetan. Algotako Abra sarian txapeldun ordea izan zen Jone Uriaren atzetik eta ondoren Hernandorena sariaren finalean sartu da. Bertsolari gazteen sariketa honen kanporaketa gaingiditu eta bihar 19:30etatik aurrera Muskildiko Posonpesenean egingo den finalean abestuko du. Finala, bertso-afari formatoan egingo da eta Ane Labakarekin, Maiana Hirigoien, Izar Mendiguren, Eneritz Arzallus, Ximun Cazaubon eta Aimar Karrika bertsolari gazteek parte hartuko dute.

Iparraldeko Bertsularien lagunak elkarteak antolatzen du Hernandorena saria, Euskal Herri osoko lurralde ezberdinetako bertsolariak elkartu eta lehian jartzeko helburuarekin,

"gurutzatu eta plazak eskaintzea dugu helburu" diote jada sariketa ezagun egin den honen antolatzaileek.

Bi kanporaketa eta finala, hiru saio dira Iparraldeko hiru lurraldetan, Xuberoan, Lapurdin eta Baxe-Nafarroan, eta Euskal Herri osoko 12 gaztek hartu du parte.

Kanporaketan nagusi

Bertsolari gazteen arteko sariketa honetako bi kanporaketak jokatu dira jada, Larresoron eta Donibane Garazin; bakoitzean sei bertsolarik kantatu dute eta bi irabazleekin batera puntuazioaren arabera beste lau bertsolari pasatu dira Muskildiko finalera.

Ane Labakak lehenengoan kantatu zuen martxoaren 13an eta bera nagusitu zen. Saio hartan Aimar Karrika, Ximun Cazaubon eta Eneritz Arzallusek ere lortu zuten finalerako txartela.

Martxoaren 27an Donibane Garazin egin zen saiotik Maiana Irigoien eta Izar Mendiguren sailkatu dira. Beraz ikusten denez Ane Labaka izango da gazteen artean horren erakargarri den sari hau irabazteko faboritoetako bat.

Hernandorena, bertsolari gazteen sariaren finala esan bezala Muskildin izango da "Posonpesenean", bihar, apirilaren 10ean afari baten inguruan. Hitzordua arratsaldeko 19:30ean da aperitifarekin eta ondoren 20:00etatik aurrera hasiko da bertso afaria. Txar-telek 17 euro balio dute.

Kantatuko duten bertsolariak esan bezala Ane Labaka, Maiana Hirigoien, Izar Mendiguren, Eneritz Arzallus, Ximun Cazaubon eta Aimar Karrika izango dira, gai emalea Joanes Etxebarria eta epai mahaian Eneko Bidegain, Beñat Soule eta Joakin Arregi eseriko dira. •

AISIALDIA

Udako Txokoetan begirale izateko epea zabalik dago

Haurrak gustukoak dituzten gaztetxoek Udako Txokoetan begirale izateko aukera eskaitzen die Ttakun Kultur elkarteak. Apirila eta maiatza bitartean zabalik izango da begirale moduan aritzeko izena emateko epea. Ttakunek eta Udaleko Euskara Batzordeak antolatzen dituzten Udako Txokoak uztaila eta abuztuan izaten dira, goizez.

Begirale izateko baldintza bakarrak 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila txukun bat edukitzea da. Dena den, begirale izateko hautagaiek lan egiteko aukera bikaina izango dute, Udako Txokoetan parte hartzen duten haurrak zaintzeko 40 begirale inguru behar izango dira eta.

Begiraleak aukeratzeko proban, begirale titulua, esperientzia eta hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak edukitzea hartuko dira kontutan eta puntuazio bidez aukeratuko dira.

Izen-ematea Ttakunen egin behar da (Geltoki kalea 4) eta informazio gehiago nahi izanez gero 943 371 448 telefono zenbakira deitu daiteke. •

ARRIESKALLETA ELKARTEA

Buruntzara irteera eta babarrun jana

Arrieskalleta Elkarteak mendi irteera antolatu du apirilaren 18an, Buruntzako I. irteera hain zuzen ere.

Goizeko 9:00etan elkartetik atera eta Buruntza mendian gora gurutzeraino joango dira.

Antolatzaileek azaldu dutenez, joan-etorria mantso egingo da eta, beraz, helduek, zein haurrek parte hartu dezakete irteera honetan.

Ibaldiaren ostean, indarrak berreskuratzeko babarrun jana egingo da elkartearen bertan. Bazkariaren prezioa 15 eurokoa da helduentzat eta haurrentzako menua ere izango da 8 eurotan.

Izena ematea elkartearen egingo da arratsalde eta azken eguna apirilaren 13an da. Era berean, bazkide ez direnak ere joan daitezke, baina beti ere bazkideek izango dute lehenetsuna. •



HARRI ETA ZUR LANAK

Riverak bere azken lanak erakutsi dizkigu

Celestino Riverak zura ezezik, harria ere lantzen du. Azkeneko hilabetetan bukatu dituen hiru lan erakutsi dizkigu. Kareharrian bi lan: Donostiako Iparraldeko tren geltokiaren parean dagoen iturria eta Donostiako armarria. Eguurrean, berriz, emaztearen eta bere abizenen armarria. Era berean, bukatzeko duen armarria bat ere erakutsi digu, ezagun baten eskaria. •

Aukera zabala emakumeen aisirako

Lasarte-Oriako Emakumeen Zentro Zibikoak ikastaro eta jarduerak antolatu ditu hiru hilabetero bezala herriko emakumeentzat. Ikastaro eta jarduera ezberdinak, apirilaren 19an hasiko dira, uztailearen 9ra arte.

Eskaintza zabala da eta herriko emakumeek denetarik egiteko aukera dute, mantentzeko gimnasia, kantua, orratz lanak, boliloak, antzerkia edo

aerobik. Jantzi konponketan eta patrioiak egiten aritzeko aukera eskaintzen dute, baita jantzigintzan trebatzeko ere.

Eskulanak egitera, bideo-forumera, eta irakurketaren txokora ere gerturatu daitezke emakumeak edo bestela hazkuntza pertsonala ere landu dezakete.

Batzuk goizez eta besteak arratsaldean izango dira astelehenetik ostiralera, gutxi

gorabehera 10:00etatik 20:00ak bitartean.

Izena ematea

Izena emateko epea ireki da eta 16a bitartean egin ahalko da Emakumearen Zentro Zibikoan bertan.

Ikastaroetan parte hartu ahal izateko Lasarte-Orian erroldatuta egotea ezinbestekoa da eta doan diren ikastaroetan ere izena eman beharra dago. •



Denetarik egiteko aukera dute emakumeek herriko Zentro Zibikoan.

Sasoetako Brigada Berdea

■ Eskola Agenda 21 martxan jarri dute eta uraren gaia lantzen ari dira ■ Ikastetxeko ur horniduren diagnostikoa egin dute ■ Hamar ikasle arduratzen dira ingurumenaz

Hamar lagunek osatu dute Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Brigada Berdea. 3. mailatik hasi 6. mailara bitartean gela bakoitzeko bi ordezkari dira ingurumena zaintzeko ardura duen patruila honetan. Agenda 21 ekimena aurten jarri dute martxan Sasoeta-Zumabururik eta Landaberri ikastolarekin batera, uraren gaia ari dira lantzen. Hasteko, ikastolako horniduren eta kudeaketaren diagnostikoa egin dute gauzak nola dauden ikusteko eta gerora ondorioak aterako dituzte jokabide egokienak bultzatzeko.

Jon ALTUNA

Pixkanaka ingurumena zaintzen ikasten ari dira Sasoeta-Zumaburu ikastetxean. Eskola Agenda 21 ekimenaren barruan sartu dira 2009-2010 ikasturtean, ingurumenarekin kontzientziazteko helburuarekin. Aurten Hernani eta Lasarte-Oriako ikastolen gaia ura da eta urarekin dauden arazoak ezagutzeko zenbait ekimen burutu dituzte aurten.

Urak duen garrantziaren berri badute jada Sasoetako ikasleek, ikasturte hasieratik ingurumenari buruzko bideoak ikusi dituzte eta. Bestalde, brigada berdea aukeratu dute: gela bakoitzeko bi ordezkari daude brigadan, gehienak zozketaz aukeratuak. Dena den Enara bere gelakoek proposatu eta aukeratu dute patruilako kide gisa, betidanik ingurumenarengatik begirune edo sensibilitate berezia izan duelako. Beste geletan zozketaz aukeratu dituzte brigada berdeko ordezkariak, baina zintzo heldu diote ardurari eta gogoz ari dira lanean.

Ikastolaren azterketa

Patruilak egindako azterketa eta lanen berri ematen dute taldeko ordezkariak, bakoitzak bere gelan. Ikastolaren egoeraren diagnostikoa egin du jada Brigadak: neurketak egin dituzte ikastolan bertan erabiltzen eta alperrik galtzen den urari buruz. Behin ondorioak atera eta gero, ikasleek artean zabalduko dituzte Brigadak berak, jokabide oke-rrak zuzendu eta ahalik eta ur gehiena aurrezteko. Brigadako kideek adierazi zigitenez, ikastolaren azpiegituratako batzuek ondo zeuden eta beste batzuek zuzendu behar direla ikusi zuten.

Bestalde, Lasarte-Oriako pertsona bakoitzak eguneko zenbat ur kontsumitzen duen

ere kalkulatu zuten eta asko dela uste dute. Kontsumo hori aztertzeko udalerriko datu errealek erabili zituzten.

Munduan uraren inguruan diren arazoei buruzko informazioa ere jaso dute bideo baten bidez: besteak beste urik ez dagoen tokietan arazoari aurre egiteko erabiltzen diren tekniken berri izan zuten.

Bosgarren eta seigarren mailako ordezkariak eman zigituzten aurten egindakoaren berri. Ikastetxean egon ginen beraiekin eta interesgarria iruditzen zaie txikitatik ingurumena zaintzeko neurriak ezagutzeko.

Aurten lehen aldiz

Tanit Perez irakasleak adierazi ziguzen, ikastetxean lehen ere "egiten ziren ekintza puntuak batzuk", baina aurten seriooki heldu diote gaiari. Era ezberdinetan burutzen da egitasmoa Tanitek adierazi digunez, "ikastetxearen diagnostikoa egin dute, gauzak nola dauden eta zer egin daitekeen ikusteko, eta ondoren dator ekintza plana. Aurreikusten dira irteera batzuk ere".

Tanit-en iritziz, oraindik hasi berriak badira ere eta ekintza gehiegi egin ez badute ere, ondo erantzun dute neska mutilek. "Jarrera ona daukate, eta ahal dutena egin dute". Konposta egiteko kutxa ere badaukate baratzean. Tanitek aurreratu digu, urtero gaiz aldatzeko asmoa duten arren, hurrengo ikasturtean segur aski gaia errepikatu egingo dela, uraren gaia hain interesgarri eta zabalda izanik uste dutelako badagoela oraindik urari buruz zer landu eta jorratu.

Eskolako Agenda 21 egitasmoaren helburua, ingurugiroaren aldeko kontzientzia eta ohitura egokiak herrian eta eskolan zabaltzea da.



Ikasketak egin eta gelatan informazioa ematea da Brigada Berdeko kideen ardura.



Ikastetxeko hornidurak aztertu dituzte Brigada Berdeko ordezkariak.

Herri mailako egitasmoa

Lasarte-Oria mailan Artelatzen ingurumen zerbitzuak dinamizatuko du Eskola Agenda 21 egitasmoa. Herrian gero eta jokabide garbiagoak bultzatzeko Lasarte-Oriako bi ikastetxetako haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako umeekin

ari dira lanean Eskolako Agenda 21 programaren bidez.

Herri mailan, aurten jarri da martxan programa eta ikasturte honetan guztira 684 ikasleek parte hartuko dute euren irakasleekin batera. Iaz Landaberri ikastolako zaborraren gaia jorratu bazuen, aur-


ten Ura izango da gaia. Beraz Uraren kudeaketa aztertu dute, ikastetxean eta herrian, diagnostikoa ahalik eta zuzenena egin ahal izateko.

Geroago aterako dituzte ondorioak, batetik euren dagoen mailan konpromiso batzuk hartzeko eta bestalde "ikusitako gabeziak konpontzeko proposamenak luzatuko dizkiote Udalari, ikasturte bukaeran Alkatearekin burutu den entzunaldian".

Txikitatik lanean

Proiektuaren arduradunen iritziz, helburua, ingurugiroaren aldeko kontzientzia eta ohitura egokiak herrian eta eskolan zabaltzea da, hau da jasangarritasuna txikitatik berengantatu dezatela. Horretarako material desberdinak dauzkate: txikiak, haur hezkuntzakoak, "Tantto gure laguna" fitxak eta lehenengo ziklokoek "Tantto gure etxean" galdeketa esate baterako.

Gai ezberdinak jorratzeko asmoa dute arduradunek, urak eskualdean egiten duen bidea, herriko iturrien ezagutza, eguneroko ohiturak eta kontsumoa, herriko errekek... eta urte bukaera baino lehen irteera batzuk ere egiteko asmoa dute, denak uraren zikloaren ingurukoak, edateko uren eta ur zikinaren Araztegi-tara edota urtegi batera bisitak eta ibaietako faunaren ezagutza besteak beste. •



Gorritz, Zumaburu kalean itxia egongo den zatia. Gezi berdeak, autoek egin dezaketzen bidea da. Planoa: Lasarte-Oriako Udala

Intertzeptore orokorreko lanen bigarren fasea hasi da

■ Isla Plazako lurpeko aparkalekuko ibilgailuen irteeratik Arantzazuko Ama elizaraino itxia egongo da

Zumaburu eremuan, Lasarte-Oria eta Usurbil udalerrien saneamenduko intertzeptore orokorreko lanen bigarren fasea hasi da.

Zumaburu kalea Ola kalearekin elkartzen den tokitik Isla Plazako lurpeko parkingeko ibilgailuen irteera arteko lanak bukatu ostean, kale horretan bertan, hurrengo eremuan hasi dira lanean.

Bigarren fasea

Fase honetan, Zumaburu kaleko Isla Plazako lurpeko aparkalekuko ibilgailuen irteeratik Arantzazuko Ama elizarainoko eremuan izango dute eragina lanek.

Dagoeneko kalearen zati horretan lanean dihardute eta fase berri hau, ekainaren 18an bukatzea aurreikusten da.

Zirkulazio aldaketak

Gauzak honela, Lasarte-Oriako Udalak jakitera ematen du, Zumaburuko eremuan aldaketak egongo direla.

Batetik, Zumaburu Kalea sartzeko Ola kalea erabiliko da eta Ola kalea bueltatzeko Ganbo kaletik igaro beharko da.

Bestalde, Isla Plazako lurpeko parkingeko erabiltzaileek sarrerako arrapalada soilik erabili ahalko dute. Hauen zirkulazioa antolatzeke, bi semaforo ipiniko dira, bata kanpoan eta bestea barruan.

Eta, aurreko fasearen antzera, Zumaburuko kalean aldi batez ezeztatuko diren aparkalekuen ordez, Ganbo kalearen alde banatan kotxeak uzteko eremuak presatuko dira.

Proiektua

Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak sustatutako proiektua da hau. Garrantzi bereziko lana izango da udalerriarentzat, izan ere, Loiolako araztegiarekin konektatuko baita gure sameamendusarea.

Ondorioz, ez da Oria ibaira isurketarik egingo eta ibaieren kalitate eta haren ingurunea hobetuko dela aurreikusten da.

Herritarrei ahalik eta gutxiena jasanarazteko eta irtenbideak emateko, lau fase desberdinetan banatu da proiektua.

Era berean, alkatetzak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik eta bizilagunen laguntza izanotutela koadre. •

Kapitalismoaren alternatibak aztergai

■ XII. Jardunaldi Internazionalistak bihar goizean hasiko dira

Urtero legez, Lasarte-Oriako Askapena eta Komite Internazionalistak taldeek, Jardunaldi Internazionalisten bidez, munduan dagoen desberdintasuna erakusten saiatzen dira eta gure herriari begiak irekitzen.

Bihar hasten den edizioan, kapitalismoaren aurrean norbanako bakoitzak egin dezakeena erakutsiko dute arlo desberdinetan, hala nola, teknologia berriak, elikadura eta kontsumoa edo banka etikoa.

Praktikari garrantzia

“Aurten asmoa ez da salaketa egitea soilik, jendea kapitalismoari aurre egiteko dauden aukerak erakutsiko ditugu,” azaldu digute antolatzaileek.

Horregatik, hamabigarren edizio honetan, alde praktikari emango diote garrantzia. “Horretarako, teknologia berrien tailerra antolatu dugu bihar bertan. Eta bestetik, hitzaldietan alde teoriko edo ideologikoz gain, beste herrialdeetan aurrera eraman diren esperientziak aurkeztuko ditugu, esate baterako Usurbileko nekazal kooperatiba,” adierazi dute.

Egitaraua

Arestian aipatu bezala, bihar goizeko 10:00etan, Xirimiri elkartearen emango zaie hasiera XII. Jardunaldi Internazionalistei.

Antikapitalismo teknologikoari buruzko tailer praktikoa izango da bertan. Bloga nola egin, pelikula eta musika jaisi edo software libreari buruzko gauzak ikasi ahalko dira bertan.

Astelehenerik asteazkenean, Manuel Lekuona Kultur etxeak hitzaldi aretoan eman-

go zaie jarraipena jardunaldiei.

Hitzaldi aretoa hurbiltzen diren herritarrek, asteleheneran 19:00etatik aurrera, elikadura eta kontsumoaren arloan dauden alternatibei buruz jakingo dute eta, era berean, tokiko esperientziak ezagutuko dituzte; asteartean, berriz, korronte berria den deshazkundeari buruzko bideoa eta hitzaldia eskainiko dira eta asteazkenean, banka etikoari buruzko *Money for debt* film laburra ikusiko da eta esperientzia interesgarri eta arrakastatsu bat ezagutzea emango da, FIARE kreditu kooperatiba.

Zinema, musika eta afaria

Baina ez da guztia teoria eta praktika izango, aisialdirako astia ere izango eta horretarako, zinema, musika emanaldia eta afaria antolatu dituzte.

Horretarako, ostegunean, Okendo Zinema Taldeak bat egingo du Jardunaldi Internazionalistekin eta, elikadura eta kontsumoaren gaia berriro jorratuaz, *Fast food nation* filma eskainiko du.

Ostiralean, berriz, musikaren txanda izango da. Gaueko 21:00etan, herriko *hogei minutu* taldeak kontzertua eskainiko du Obelix tabernan. Hainbat abesti ezagun eta antikapitalista entzuteko aukera egongo da.

Eta, ohikoa den bezala, larunbatean, apirilaren 17an, Xirimiri elkartearen ospatuko den afari internazionalak emango dio amaiera aurtengo edizioari.

Afaria mexikar-begetariano izango da eta 12 euro balio ditu. Tiketak Jalgin eta Xirimirin eskuratu ahal dira. •

ANAIK

JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

Kiroletako agenda

■ FUTBOLA ■

Larunbata 10

16:00etan, Ostadar-Santo Tomas Lizeoa (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.

■ FUTBOL 7 ■

Larunbata 10

17:00etan, Marmoles Jeymar Spartak Obelix (III. maila) Berion, Donostian.

■ ARETO-FUTBOLA ■

HERRIKO TXAPELKETA

Ligilla eta kontsolazioa Ostirala 09

20:30etan, Okela-Siglo XX

Larunbata 10

9:15ean, Goiz Argi-Obelix
10:15ean, Biyona-Morrison
11:15ean, Mingallon-Viña del Mar
12:15ean, Naiban-Tragoxka
13:15ean, Ilargi-IOB H.K.

Final laurdenak, kiroldegian Larunbata 10

16:00etan, Epel-Izarra
17:00etan, Izkiña-Lekuona Mena

Igandea 11

10:00etan, ISU Leih.-Oria Krist.
11:00etan, Buenetxea-Ainhoa



■ JUDO ■

Larunbata 10

10:30etan, LOKEko Leire Zubizarreta eta Iñaki Elizaldek 23 urte azpiko Espainiko txapelketako Iparealdeko sailkapenean parte hartuko dute, Zaragozan.

■ TXIRRINDULARITZA ■

Larunbata 10

16:30ean, Bazpi txirrindulari taldeko juniorrek Euskal Herriko trofeoak XIII Piedras Naturales Baigorri proban parte hartuko dute, Oteizan.

16:30ean, Bazpi txirrindulari taldeko infantil eta alebinak Irungo Sarian parte hartuko dute, Irunen.

Igandea 11

09:00etan, Ostadarreko zikloturista taldeak Guadalupe eta Jaizkibel aldera egingo du irteera.

16:30ean, Bazpi txirrindulari taldeko juniorrek XXVII Villa de Errenteria sarian parte hartuko dute, Errenterian.

■ SQUASH ■

18:00etatik aurrera, kiroldegian Ostirala 09

J. Ramon Urruzola-Iker Serrano Iñaki Garcia-Raul Mateos

Astelehena 12

Joaquin Peña-Mikel Zugasti F. Montero-Patxi Delgado

Asteartea 13

Iker Cañedo-Alberto Udabe

Asteazkena 14

Iker Serrano-Kinin Calvo Raul Mateos-Xabi Amiano

Osteguna 15

Javier Serrano-J. R. Urruzola Aitor Artola-Iñaki Garcia

■ BOLA-JOKOA ■

Igandea 11

Egun osoa, Ostadarreko bola joko taldeak Lehendakari txapelketako saioa jokatu du Ategorrietan.



Bost saridunak proba amaitu ondoren Buruntz-Azpi elkarteak alean.

Arg.: Buruntz-Azpi (Jesus Ferreira)

Ferreira eta zakurra txapelkun ehizan

■ 18 ehiztarik hartu zuten parte Buruntz-Azpi elkarteak antolatutako sariketan ■ Buruntza mendian askatu zituzten 52 eperretatik 21 ehizatu zituzten ehiztariek

Buruntz-Azpi elkarteak martxoaren 27an Buruntza mendian antolatu zuen zakuraren laguntzaz egindako Ehiza Xehex Txapelketan Jesus Ferreira izan zen irabazlea. Zazpi eper ehizatu zituen txapelkunak, lau aldiz, Juan Antonio Matxain eta Luis Sanchez, bigarren eta hirugarrenak. Guztira 18 ehiztarik hartu zuten parte.

Goiz guztia, goizeko 8:30ak eta 13:00ak, bitartean izan zuten Buruntz-Azpi Elkarteak

antolatutako ehiza txapelketan parte hartu zuten 18 ehiztariek Buruntza mendian askatu zituzten eperrek ehizatzeke. Guztira 52 askatu zituzten eta erdiak baino gutxiago harrapatu zituzten, 21 eper.

Jesus Ferreira irabazleak, bere zakuraren laguntzarekin, zazpi eper ehizatu zituen, Juan Antonio Matxain bigarrenak lau eper bota zituen eta Luis Sanchez hirugarrenak ere beste lau.

Beteranoen artean onena, ia urtero saria eskuratzen duen

Antonio Carrasco izan zen: aurtun eper bakarria eraman zuen eguerdian elkartera eta hasiberrien artean, loritz Gonzalez jubenila izan zen onena. Honek bi eper ehizatu zituen.

Txapelketari amaiera bikaina eman zioten eguerdian Buruntz-Azpi elkarteak. Proban parte hartu zuten ehiztari guztiek elkarrekin bazkaldu zuten. Patatak Errioxako erara eta bildotsa labean erreta janda indarberitu ziren eta goizean botatako izerdiak ahaztu zituzten. •

Salsamendi hirugarren bola-jokoko txapelketako saioan

Berdintasuna izan zen nagusi Lasarte-Orian martxoaren 21ean jokatu zen Boloetako Lehendakari Txapelketako saioan.

Guztira 50 lagunek parte hartu zuten Michelinen burutu zen proban. Legazpiko German Gereño irabazleak, 48 txirilo bota zituen eta Iñaki Salsamendi lasarteoriatarra hirugarren postuan sailkatu zen, Gerñok baino birla bat gutxiago botata.

Baina ez zen 47 txirilo bota zituen lasarteoriatar bakarria izan, Joxean Rebek ere bota zituen eta.

Ostadar Kirol Fundazioko bi jokalarik hauek lan ona egin zuten saio honetan.

Berdinketa hausten

Hainbat jokalarik 47 birla bota



Arg.: Txema Valles

Lehia handia egon zen Michelinen jokatu zen Lehendakari txapelketako saioan.

zituzten eta berdinketa hauste-ko lehian sartu ziren.

Segurako Zeferino Agirre izan zen onena eta bigarrenpostua eskuratu zuen. Ondoren, Iñaki Salsamendi eta Zeraingo

Antonio Alustiza sailkatu ziren.

Joxean Rebek ere parte hartu zuen berdinketa hauste-ko lehian, baina tiraldietan ez zen hain fin ibili eta bederatzigarrena izan zen azkenean. •

Kiroletako oharrak

Errugby eskola

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri zen otsailean.

Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30 bitartean entrenatzen dute Michelinen.

Errugby eskolako antolatzaileek Lasarte-Oriako ikasle guztiak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.



Egunero

Erakusketa

SU LAZTANAK, Garikoitz Lasaren egurrean egindako pirograbatuak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.

Larunbata, 10

Tailerra

ANTIKAPITALISMO TEKNOLOGIKOARI buruzko tailer praktikoa eskainiko da XII. Jardunaldi Internazionalisten barruan. Xirimiri Elkarte, goizeko 10:00etatik 14:00etara.

Igandea, 11

Zinea

PONYO EN EL ACANTILADO haurrentzako filma eskainiko da. Sarrera 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Astelehena, 12

Hitzaldia

ELIKADURA-SUBIRANOTASUNAZ TOKIKO ESPERIENTZIAK aurkezteko hitzaldi praktikoa XII. Jardunaldi Internazionalisten barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Asteartea, 13

Hitzaldia

DESHAZKUNDEARI buruzko bideo emanaldia eta hitzaldia XII. Jardunaldi Internazionalisten barruan. Manuel Lekuona kulturetxean 19:00etan.



Musika berria eta kontzertu berezia
Oreindik taldearen eskutik

2009 urtearen hasieran sortu zen taldea. Taldean eragina duten estiloak oso anitzak dira, beraz ez da erreza zehaztea zein musikarirekin lotu gaitzkeen. Estilo asko jorratzen ditugu: rocka, funkya, Pop, Metal, Fusioa... Lasarte-Orian entsatzen dugu eta helburu argi bat dute: kontzertuak eskaintzea. Abestietako letrak gertukoak dira, personalak, helburu bati zehazki lotu gabe; une zein ideia ezberdinen isla dira: Zerri Hegalari batekin ametsetan hasi...

APIRILAREN 10EAN, LARUNBATA
SUSTRAI TABERNAN
20:00ETAN

Asteazkena, 14

Hitzaldia

BANKA ETIKOARI buruzko bideo emanaldia eta hitzaldia eskainiko dira XII. Jardunaldi Internazionalisten barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Osteguna, 15

Zinea

FAST FOOD NATION filma. Sarrera 4,15 euro. Okendo Zinema Taldearen eskutik XII. Jardunaldi Internazionalisten programazioaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30etan.

Ostirala, 16

Kontzertua

YDILIA rock taldeak kontzertua eskainiko du, Xpression eta Lasarte-Oriako Udalak Gazte ekimenak bultzatzeko duela hilabete batzuk eginiko akordioaren barruan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Antzerkia

GEZURREZKO PRINTZEA antzezlan, Txirene antzerki taldearen eskutik. Jalgi kafe-antzokian, iluntzeko 21:30ean. EUSKARAZ.

Kontzertua

OGEI MINUTU taldearen kontzertua XII. Jardunaldi Internazionalisten barruan. Obelisk tabernan, 21:00etan.

Larunbata, 17

Bazkaria

AFARIA MEXIKAR-BEGETARIANO XII. Jardunaldi Internazionalisten barruan. Menua 12 euro. Xirimiri Elkarte, 21:00etan.

Igandea, 18

Zinea

TIANA Y EL SAPO haurrentzako filma ikusgai. Sarrera 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Astelehena, 19

Kontzertua

EUSKAL IPUIN BAT izeneko kontzertu pedagogikoa. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

Oharrak

60ko kinto afaria

Dana Ona jatetxean ospatuko da maiatzaren 29an 60ko kintoen afaria. Izena emateko azken eguna maiatzaren 5ean izango da. Pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu eta diru hori Kutxako 2101 0048 20 0012568275 kontuan sartu behar du. Informazio gehiago nahi izanez gero, interesatuek 943 37 09 80 telefonora deitu behar dute (Maria Luisa).

Iruzurren abisua

Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak jakin duenez, enginuaren bidez egindako lapurretara bat izan da udalerrian.

Diputazioako teknikariak direla esanez, bi pertsona sartu dira Lasarte-Oriako etxebizitza batean jabeen baimenarekin, eta momentu hori aprobetxatu dute lapurtzeko. Hori dela eta, antzeko egoerak aurreikusteko eta saihesteko, alkatetza honek arreta eskatu nahi die herritarrei.

Halaber, Lasarte-Orian Haitirekin maratoi solidario batean laguntzeko aitzakia-ekin, diru kopuru bat eskatzen ari zaie komertzio eta tabernei. Udaleko Erregistroan kirol proba hau burutzeko instantzia bat aurkeztu badute ere, datu faltsuekin egin dute eskaera, eta beraz, ez dago horrelako maratoi solidarioak aurreikusita.

Udaltzainek jasotakoak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, argazki kamara, urrezko eskumuturrekoa, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, Nokia markako mugikorra, Festina markako eskumuturreko erlojua, Suzuki markako motozikleta kaskoa, zilarrezko belarririkoa, betaurreko graduatuak eta betaurreko graduatuak bere estutxean.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Liburutegiko ordutegia



Manuel Lekuona kulturetxea

Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Eskutitzak

Herriko Gizarte Zerbitzuen egoera

San Pedro eta Arantzazuko Ama parrokietako Karitasek herriko gizarte zerbitzuak bizi duten egoerak eta bere ondorioek sortzen diren kezka adierazi nahi du.

Gizarte zerbitzuak hiru lanpostu galdu zituenetik (bi gizarte langile eta administrazioari bat) bertara gizarte langileekin egon nahian hurbiltzen diren pertsonen hitzordua lau hilabete baino gehiagoko atzerapenarekin ematen zaie.

Ez dugu ahaztu behar gizarte zerbitzuetara joaten

diren hiritarrek arrazoi bat edo besterengatik egoera larrian aurkitzen direla. Uste dugu bere udalaxearen laguntza gehien behar duten pertsonak direla. Eta ez dugu uste onartu behar dugunik lehenengo hitzordua emateko dagoen atzerapen hori.

Ziur gaude udalean hau kezka larria izango dela. Suposatzen dugu konponbidea ez dela erraza izango. Badakigu udalaren egoera ekonomikoa ere ez dela onena. Baina badakigu baita ere gauza batzuentzat dirua badagoela. Aurrekontua badagoela. Horregatik eskatzen diogu udalari eta zine-

gotzi guztiei egoera honi lehenbailehen irtenbide bat aurkitzea. Eskatzen dugu, exijitzen dugu (premia dagoelako) arreta eta laguntzaren behar gehien duten hiritarrei bere udalak harrera ez diezaie laua hilabete barru eman.

Arazo hau lehenbailehen konpontzea espero dugu. Baina bitartean eta Denok jakin dezagun, edozeinek ikusteko moduko leku batean jar dezatela gizarte langileekin hitzordua emateko epea zein den.

Lasarte-Oriako Karitas

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Fadoa eta euskal doinuak elkarkidetzen

Alboka Abesbatzak Portugalera egin zuen bidaia martxoko zubian

Euskal doinuak eraman zituen Alboka Abesbatzak Portugalera Leiria eremura martxoko zubian egin zuen bidaiari. Baina abesteaz gain, turismorako astia ere izan zuten eta Portugalgo hiriburua, Lisboa, Fatimako santutegia eta Batalhako monastegiak ezagutu zituzten.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Alboka abesbatzak Portugalera egin duen hiru egunetako bidaia elkartruke baten ondorioa da. "Alquedao da Serra herriko Calçada Romana abesbatza izan genuen herrian urrian eta orain gure txanda izan da," azaldu digute abesbatzatik.

Abeslariak ez ezik, bazkideak ere joan dira bidaira. Guztira 41 pertsona. "Abesbatza eta bazkideen arteko harremanak sendotzeko aukera ematen dute horrelako bidaiak," adierazi dute.

Bidaia

Lasarte-Oriako taldeak gauzez egin zuen bidaia. Autobusez hamabi ordu egin ostean, Lisboa iritsi eta goizean, hiriko monumentu eta auzo esanguratsuenak erakutsi zien gida izan zuten, hala nola, Los Jeronimos, Belemgo dorrea, Santa Justako dorrea edo Avenida de la Libertade.

"Los Jeronimos bisitatu genuen eta bertan doinu sakro bat abestu genuen, turista asko geratu zen guri begira," adierazi digute.

Arratsaldean, berriz, trantxian ibili, gaztelua edo Goiko auzoa bisitatu... hainbat kaleetan barrena ibili ziren Alboka abesbatzako kideak.

Hurrengo egunean, kontzertu eguna, goiz jaiki eta gotiko estilo desberdinak bateratzen dituen Batalhako monastegia bisitatu zuen taldeak.

Arratsaldean, berriz, Fatimara egin zuen taldeak, izan ere bertan hartu behar zuten ostatu. Eta nahiz eta denbora gutxi izan, ordu gutxi batzuetara kontzertua zuten, abesbatzako kide ugari Fatimako santutegira hurbildu ziren, "Cova da Iriara gerturatu eta Fatimako amabirjinari kandelak jarri."

Kontzertua

Alquedao da Serra herrixkan eskaini behar zuen herriko



Alboka Abesbatzako kideek eta bazkideek egun pasa egin zuten Lisboan. Argazkian, Eduardo VII. parkean. Arg: Iker Olano

abesbatzako kontzertua.

Baina aurretik, Porto de Moseko alkateak eta zinegotziek taldeari ongi etorria egin zien haien lurraldera. "Izan ere, Alquedao da Serra Porto de Mos eskualdeko herririk txiki bat da. Harriaren industriatik bizi den herria da eta berezko alkaterik ez duena," azaldu digute.

Kontzertuari dagokionez, harrera ona izan zutela aipatu digute Alboka Abesbatzako arduradunek. "Nahiz eta Alquedao da Serrako entzuleak folklore musikara ohituak egon, eliz musikako zatia ere gustuko izan zuten," aipatu dute.

Lasarte-Oriako taldeak bi zatitan banatu zuen kontzertua. "Hasieran, agurra abestu eta abesbatzako kide batek dantzatu zuen. Ostean, eliz musika izan zen nagusi, hala nola, Griegen *Ave Mari Stella* edo Knut Nystedt konpositore norvegiarrak egindako *J. S. Bachen Komm, süßer Tod*-en bertsioa," azaldu digute.

Folklore izan zen nagusi bigarren zatian. "Euskal doinuak eta nazioartekoak abestu genituen. Esate baterako, *Kaiku, Porrusalda* edo *Kitolis* euskal abestiak eta *Balaio meu bem* eta *Olha rosa amarela* doinu brasildarrekin edo galegoz dagoen *Lela* abestia-

rekin nahastu genituen," adierazi digute.

Ostean, afaria izan zuten Calçada Romana abesbatzako kide batzuekin batera.

Irakurketa ona

Eta bueltako bidaiari ere, turismoa egiteko astia izan zuten.

"Aveiro herriko kanalaren eremua ezagutzeko ordutxo bat izan genuen. Gero, berriro ere autobusera eta etxera," azaldu digute.

"Guztiek abeslari, zein bazkideek ongi pasa dute eta zuzendariak ere, kontent daude kontzertuan egindako lanarekin" aipatu dute. •

“ Nahiz eta folklore musikara ohituak egon, eliz musikako zatia ere gustuko izan zuten Alquedao da Serrako entzuleek



Alquedao da Serra herrixkan eskaini zuen Albokak kontzertua eta harrera ona izan zuten. Arg: L. Etxeberria



Turismoa egiteko beta ere izan zuten, Fatimako santutegira, esate baterako. Arg: L. Etxeberria